

noaia

**Unai Aizpurua,
Mexikotik: “Erronka
profesionala handia da”**

**Urtarrilaren 3a,
Jontxu omentzeko eguna**

Santo Tomas, iruditan



Gazte lokalen parte hartze prozesua

**“Adostasunak dokumentu
batean idaztea izango da
hurrengo pausoa”**

Abenduan Erosketa DOAINIK



jostailu denda xirinbolo
 (abenduko erosketa baten zozketa)
 erosketaren balioa bertan gastatzeko
 bale bat izango da

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil

URDAIRA
Sagardotegia



Abenduak 20 **BARRIKOTEA**
20.00h Urdairan
 astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



Otar-Goxo
 E l i k a g a i a k

Hirukide
 Hirukide elkarteko kide diren
 familientzat... **%5 EROSKETA GUZTIAN!**

**Gabonetako berezitasunak
 eta otarrak prezio ezin hobean**

merkalitatea
hurbilag

Harategiko berezitasunak	Urdaitegiko berezitasunak	Etxeko berezitasunak	Fruta dendakoak
Txahal azpizuna	Foie frexkoa	Txangurro krocketak	Ananak
Behi azpizuna	Ahate konfita	Txipi krocketak	Gaztainak
Esneko arkumea	Mikuit	Onddo krocketak	Mahatsa
Txerrikumea	Pate ezberdinak	Onddo krepak	Orejoiak
Antxumea	Olagarro ozpinetan	Txangurro krepak	Kiwiak
Kapoia	Antxoa ozpinetan	Txipiroi krepak	Bertako barazkiak
Pularda, ehiza,	Izokina	Arrain budina	Fruten selekzioa
Rosbeef, entrekota (1kg)...	Olagarro egosia	Piper beteak	
	Iberiko aukera zabala		

Zubiaurrenea, nº2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albiste iruditan

Zero Zaborrek jakinmina piztu du, baita Txinan ere

Ez da atzerritik hemen dugun hondakinen kudeaketa eredua ezagutzera datorren lehena. Azkena ere ez ziur. Egunerokoan inguruotan hondakinak gutxitu, birziklatu eta berrerabiltzen egiten den saiakerak nazioarteko hainbat lagunen arreta erakarri izan du. Gurean indarrean dugun hondakinak kudeatzeko sistema ezagutzeko interesa erakutsi dute. Eta hona etorri izan dira, hondakinen alorrean egiten dena bertatik bertara ikustera.

Aurreko astean, Txinako Zero Zabor Aliantzako ordezkari bat bisitan izan genuen Usurbilen. Yimin. Guangzhoun hirian dagoen Ecocanton izeneko taldeko kidea da. Europako zero zabor esperientziak ezagutzera etorri zen. Parisen eta Bartzelonan egon ostean, bidaia horren baitan, Euskal Herria bisitatzeko tartea hartu zuen.

Bi egunez izan zen gure artean. Has-teko, nola ez, Usurbilen. Bisitan izan



Guangzhoun hiriko Ecocanton taldeko kide bat izan da Usurbilen. Irudian, auzokonpostatze gune batean.

genuen abenduaren 10ean. Lehenbizi Potxoenean, aurkezpen orokor bat egin zitzaion. Euskal Herriko hondakinen kudeaketaren egoeraren eta azken urteotan Gipuzkoak izan duen bilakaeraren berri jaso zuen. Segidan, bilketa eredua eta azpiegiturak ezagutzen izan zen; au-

zokonpostatze guneak, Garbigunea, atez ateko bilketa... Erraustegia egin behar zuten eremura ere igotzekoa zen. Tolo-saldea eta Goierri ere bisitatzeko zen, gidari lanak egiten ari ziren Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteko kideekin batera.

Laburrean

Salgai den udal lokala ikusteko aukera

Ostiral honetan, abenduaren 19an. Kale Nagusia 37an, Udalak salgai duen 47,99 metro karratuko lokalaz ari gara. Enkantera aterako du, irteera prezio honetan: 25.546,99 + BEZ (%21). Aurrez lokala ikusi nahi dutenek ostiral honetarako hitzordua eskatu beharko dute, udaletxera deituta: 943 371 951.

Udal aurrekontuak, ez ohiko udalbatza-bilkuran

Eguberriak tarteko, aurreratu egingo da abenduko osoko bilkura eguna. Datorren astelehenean egingo da, abenduaren 22an astelehena, ohiko ordu eta lekuan; iluntzeko 18:00etan udalbatza aretoan. Eguneko gai zerrendan, 2015erako udal aurrekontuen hasierako onarpena.

Telebistako antena egokitu, 2015 urtea hasi aurretik

Zuetako askok, urtezahar gaueko hamabi mahats aleak telebista aurrean jan nahiko ditu. Baina go-goan izan; etxeko antena egokitu beharra dagoela. Bestela, telebista kate bat baino gehiago ikusteari utziko diozue. Antena egokitu eta kateak berriro sintonizatu beharko dituzue. Argibide gehiagorako; antena instalatzaileekin harremanetan jarri.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noqua.com /// www.noqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada:

2.800 ale.

Lege-Gordailua:

SS-668-96

ISSN:

1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu


Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal Herreria!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Azaroaren 25ean izan zen Aita Santua Europako Parlamentuan. Han esan zituen hitzak ez dira ahazteko modukoak: "onartezina da Mediterraneo itsasoa hilerri erraldoi bihurtzea. Europako itsasertzetara etortzen diren ontziak gure babesaren eta laguntzaren beharrean dauden pertsonen beteak daude. Hori ez badugu egiten, ez dugu errespetatzen beren duintasuna eta jarrera horrek esklabo lana eta tentsio sozialak eragiten ditu". Pablo Iglesiasek ("el coletas") ere txalotu egin zuen: "ondo, Bergoglio!".

Egun batzuk geroago Xabier Aierdi (EHUko irakaslea) eta Joaquín García Roca (Valentziako Unibertsitateko irakaslea) soziologoek etorkinen inguruko gaia jorratu zuten Azpeitiako Soreasu Antzokian. Etorkinak, gu bezalaxe, gizakiak direnez, pertsonari dagokion duintasunez hartu behar direla azpimarratu zuen valentziarrak. Eguneroko politikan, aldiz, bigarren mailako kanpotar eta aurkari baitiztan hartzen ditugu. Duintasuna-

ren eraikitzaile izan beharko lukete herrialde aurreratuek eta bertako auzokide bihurtzen saiatu atzeritar hauek. Gizakiak dira beste ezeren gainetik. Entzuleei uste okerrak eta aurreiritzi ez-zuzenak zuzentzera dei eginez bukatu zuten beren gogoeta.

Migrazioak gestionatzea bihurtu da XXI. mendeko kezka nagusienera. Intelektual handi batek dioenez, munduak ez du inoiz ezagutu horrenbesteko herri zirkulaziorik, ezta horrelako herritar ezberdinen topaketarik ere.

Kanpotarrekiko jarrera askotan ezkorra izaten da: alde batetik ezegunaren beldurra; ezin hurbilduko natzaio, gaixotasunen bat kutsa diezadake, lapurtu egingo dit agian, nire ogia jatera etorri da... izudura horrek eguneroko jarrerak aldatzen ditu maiz. Eta bestetik bazterketa, disimulatua baldin bada ere batzuetan. Arrazoiak: gure ongi izatea apurtzen dute, ez digute ezer onik ekartzen... Baina, bada, aldiz, etorkinekiko beste jarrerarik ere: beren aldeko konpromisoa. Duela gutxi galdetzen nion gure parrokiako eliztar bati ea zer lan

egiten zuten kanpotarren alde eta honela erantzun zidan: "Duela 8 urte sortu zen Gipuzkoako Elizbarrutian etorkinen pastoral taldea. Denbora honetan pixkanaka aurrera pausoak ematen ari gara. Gure taldearen helburua da pertsona horiei harrera on bat egitea eta beren beharrei giza, erlijio eta kultur mailan ahal den neurrian laguntza ematea eta bideratzea. Sentsibilizazio kanpainak ere antolatzen ditugu, hitzaldiak han-hemenka emanez".

Ez dago zalantzarik bidegurutze baten aurrean gaudela: diruaren jainkoa adoratzeko eta jarrera hau mundu osoan zabaltzeko, edo solidaritatearen testigu izatea. Bigarren honek bakarrik lagunduko digu gizaki orok betidanik amestu duen anaitasuneko mundu ederra gauzatzen. Afrikako tradizioan kontatzen dena honen adierazgarri: aitonak esan omen zion bere bilobari: "Zure baitan bi otso daramatatzazu: beldurra eta maitasuna". Bilobak galdetu zion: "bietan zein izango da garaile?". Aitonak: "Zuk

jaten ematen diozun hura".

Mestizajearen eta kultur ezberdinen arteko elkarlanean oinarritutako mundu berri bat eraikitzen ari gara. Etxeko eta kanpoko guztiok amets berdina egiten dugu: anaitasunean eta duintasunean bizitzea. Eguberriaren atarian gaude: kaleak apaindu dituzte jadanik. Begiratzen ikasten badugu, beste mundu samurragoa eta duinagoa sortzen ari dela ikusiko dugu: janariaren bankuak marka guztiak hautsi ditu azken janari bilketan, Malala neska gazteari Nobel saria eman diote, egunero milaka pertsona manifestatzen dira munduan zehar beste mundu libreago eta zoriontsuago baten alde. Belengo Haurra dugu utopia bikain horren ikono; bera ere arrotz izan zen. "Bereetara etorri zen eta bereek ez zuten onartu". Paria gisa tratatu zuten. "Arrotz nintzen eta etxean hartu ninduzun", da bere jarraitzaileei eskatzen dien jarrera; hara programa polita gure inguruko kanpotarrei zoriontsuago izaten lagun diezaiagun.

Eguberri On eta Urte Berri zoriontsua opa dizuet.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | **Luis Aranalde** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

8.600 euro, Xiberoko ikastolaren alde



Guraso talde batek jaso zuen txekia. Egunaren akaberan, 8.700 euro batuak zituzten. Partehartu duten usurbildar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete Nafartarrak-eko kideek.

Errigoratik, esker onez

151.000 euroko laguntza bildu dituzte Errigora kanpainan. Jasotako laguntza Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzeko baliatuko dute. Usurbilen 79 otar saldu dira, Udarregi Ikastolan, Aitzagan, Aizpurua okindegian eta NOAUA! Kultur Elkartean. Esker oneko hitzak luzatu nahi dituzte ekimen honen sustatzaileek.

Zuen publizitatea hemen



943 360 321

publizitatea@noaua.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Babarrun jan ederra egitekoak ziren aurreko abenduaren 10ean, Zubietako Barazar jatetxean. Ederki zaindu eta sasoiko mantentzen dira Gure Pakea Elkartekoak. Babarrun janaren aurretik, Usurbildik Lasarterako bidea osatu baitzuten, tipi-tapa. Abiatzear zirela atera genien taldekoei ondoko argazkia. Eguna goibel samarra esnatu zen arren, giro ederrean hasi zuten ibilbidea Dema plazatik.



Eguberri giro betean garen honetarako, barrua goxatzeko hitzordu ziur jendetsuak izango direnak antolatu ditu Gure Pakea Elkarreak datozen egunotan. Gaztain eta txistor jana, gabonetako zozketarekin batera, abenduaren 19 eta 22rako hurrenez hurren. Abenduaren 19an gainera, 15x20 tamainako argazki bat doan ateratzeko aukera izango duzue Artzabalen. Alkartasuna Kooperatibako abenduko erosketa tiket bat edo egunean bertan Artzabalen egindako kontsumizio baten truke. Argazkia ateratzeko ordutegia: ostiral honetan, abenduaren 19an, 12:00-13:30 artean eta 17:00-19:00 artean:

Abenduak 19, ostirala

■ 18:00 Txistor jana Artzabalen.

Abenduak 22, astelehena

■ 18:00 Gaztain jana. Ondoren, loteen zozketa.

Zuzendaritza berritzeko prozesua, bete-betean

Eguberrietan bakarrik ez, hauteskunde giroan da baita, Gure Pakea Elkarrea. Zuzendaritza batzordearen erdia, %50a berritzea tokatzen zaie. Berritzea, datorren urtarrilean deituko duten batzar nagusian gauzatuko dute. "Gure erakundeak, estatutuei jarraiki, zuzendaritza-batzordearen %50 berri behar du, ahal dela, 2 emakumezko

eta 2 gizonezko, 2015eko urtarrilean egingo den batzar nagusian", ohartarazi dute jubilatuen bilguneetik.

Ordurako hautagaiak behar dituzte ordea. Orain dute interesdunek hautagaitza aurkezteko epea. Abenduaren 23ra arte hain zuzen. Interesdunek bide hauetatik eman dezakete izena:

Nola eman izena

■ Astearte, asteazken eta ostegunetan, 10:00-12:00 artean. Gure Pakea elkarreak Artzabalen duen egoitzan.

■ Email bat idatziz helbide honetara: gurepakea@ymail.com

■ Bulegora deituta: 943 368 770.

Ixabel Agirresarobe, antzerkian eta kontu kontari

Haur eta helduak Martin artzainaren abenturak adi-adi entzun zituzten aurreko igandeko Santo Tomas Azokan. Ixabel Agirresarobek girotu zituen azokako lehen minutuak, frontoi sarreran egokituriko gunean eskaini zuen ipuin kontaketa saioarekin.

Eguberrietan ere beste emanaldi batzuk ere eskainiko ditu usurbildar aktoreak:

Abenduak 20, larunbata

12:00 Muxurbil antzerki tailerrekoen "Eguzkia eta ilargia" ikuskizuna, Sutegi-ko auditorioan. Antolatzailea: Muxurbil antzerki tailerra.

Abenduak 26, ostirala

17:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, Santueneko frontoian. Ondoren, txokolate jana. Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkarrea.



Santo Tomas egunean haurrentzako ikuskizuna eskaini zuen frontoian.

lnaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@lnakiiturgintza.com - www.lnakiiturgintza.com

600 024 825

TAXI 24 h

ORAIN 8 PLAZA!

677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Aginagako txispa Artobixarren

Lehenago ere elkarrizketatu dituzte astekari honetan bertan, Artobixar taldeko kideak diren Herri Harto, Ander Osa, Mikel Romero eta Jonander Bruño. Baina oraingo honetan, Jonander izan da mintzalagun, berak baitu agiñatarretik zertxobait. Taldeko txispa dela aipatu dut izenburuan, nahiz eta nik kontzertu bakarra ikusi dudana, horrekin geratzen naiz. Bera oso gustura omen dago talde honetan eta punk-oi egiten saiatzen omen dira. Berak garbi utzi nahi izan diñ, nahiz eta kaskamotzak izan, ez dutela ezer eskuin muturretik, are gehiago, antifaxista moduan dute beraien burua. Ez dut uste beraien kontzertu askotara joango naizenik baina zorterik onena opa diet Jonanderri eta gainontzeko taldekideei. GORA ARTOBIXAR!



KALEBERRI

MADDI ZALDUA

Olentzero joan zaigu ...

Bai, eta berarekin batera, 2014.urte hau ere joan zaigu, ez mantso gainera! Igara dira 365 egun eta dagoeneko, sartu gara atzera kontuan. Gaurtik astebete ingurura hasiko gara etengabeko jan eta edanaren maratonia, korrika. Pff, ze perezaz!

Askok eta askok prest izango dute Olentzerori, txukun-txukun, hizki garbi-garbiz idatzitako eskutitza. Ez ahaztu baina, txintxoak izan denari soilik ekartzen diola oparia Olentzerok; gainontzekoei, zorte pixka batekin, ikatza.

Olentzero etorri, zapata garbi-garbian oparia utzi eta berriro ere, mendiara joango da, ikatza egitera ...

Bere atzetik etorriko dira hiru Errege Mago. Haiei ere milaka eskutitzez beteko zaie gutun-ontzia. Agian, erregeei irudituko dakieke txintxoak izan gara eta Olentzerorekin zorterik izan ez bada, hemen dugu bigarren aukera.

Nik ez diot Olentzerori eskutitzik idatzi, oraindik ez behintzat. Baina jaso dut opari bat, ezustean. Hau ez diot gainera, ez Olentzerori, ez beste inori eskertu behar, zuri baizik, Noaua!

Urtea modu gozo (eta ziurrenik, kiloto batzuk gehiagorekin ere) amaitzeko otar zoragarri horrengatik. MILA ESKER!

Azken lerro hauen bitartez, orain, urtea ondo bukatu eta datorrena hobeto hasi dezazuela opa dizuet!

Urte berri on!



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Urte amaiera

Aspaldi honetan idatzi gabe egon naiz eta orain suertatu zait. Urte amaiera gainean dugu eta izango dira lan bazkari edo afari, plastikozko pinua ateratzeko eta apaintzeko garaia ere bai, Olentzerori gutuna idatzi...

Beraz gauza asko pilatzen dira egun hauetan, batzuentzat gustokoak, eta beste batzuentzat berriz, ez hain gustokoak. Gure auzoan laster jarriko dute Olentzero eta etxeko txikienak urduritzen hasiko dira pixkanaka pixkanaka.

Familiak biltzeko ere balio izaten dute gabonek, edo alderantziz ere bai, banatzeko, ze denetarik izaten da egun berezi hauetan. Batzuk emaztearen familiara, gero senarrarenera, baina ez dakit nor joaten bada, ez goaz... halakoak ere bai.

Balorazio egunak ere badira, pixka bat atzera begiratu eta ea aurtengo urtea ona, txarra edo zer izan den aztertzea, eta nola ez, aurrera begiratu itxaropenez urte berriari. Oraindik egun batzuk falta badira ere, nik osasuna, lana eta maitasuna eskatuko dut denontzat, ea iristen zaizuen.

Eta gogoratu datorren urtean Kilometroak dugula herrian, eta denon laguntza beharko dela, lan handia baita. Eta gauzatxo bat; norbaitek erosi nahi al ditu Kilometroetako errifa pare bat? Jajajaja



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Santa Zezili Eguna

2014. urteko azken astekaria dugu hau. Konturatzerako alde egin digu urteak. Ondo begiratzen badiogu, seinale ona dela esango nuke. Azaroaren 22an Santa Zezili Eguna ospatu genuen Irrii Abesbatzakook, parrokiako taldeak. 40 urtez atzera begiratu eta esan behar 56 pertsonak osatzen zutela Usurbilgo abesbatza. Julian Txiki apaizarengandik hasi, Joan Mari Udabek jarraitu, eta gero Ramon Udabek ekarri du gaur arte zuzendaritza. Askok eskertzen da haien lana. Garai hartan zeudenetatik 12 partaide gelditzen dira. Orain 40 urte bete dituztenak eta argazki honetan azaltzen dira eurak. Zorionak denoi! Bukatzeko, gabon jai zoriontsuak opa dizkizuet irakurle guztioi. Urte berri on denoi! Hemengoak izan eta kanpoan bizi zaretenoi, batez ere osaba Joan Mari Argilangoari besarkada bat.



eLiburutegia: liburutegi digitala, mailegu digitala

Irakurgailu elektronikoa (eReader) bidez irakurtzen duzu? Edo nahiago duzu ordenagailua, tableta edo/eta telefono mugikorra erabili liburu bat irakurtzeko? Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak, Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia tarteko, formatu digitalean irakurtzeko proposamen berri (eta on) bat eskaini nahi dizu: eLiburutegia izeneko liburutegi digitalaren bidez, liburu elektronikoa (eBook-ak) mailegatzeko aukera, hots, mailegu digitala egitekoa. Hau dena berria bada zuretzat, hementxe duzue Sutegi Udal Liburutegiko kideek prestatu ditugun gida.

“Gehigarri interesgarri batekin dator zerbitzu publiko hau: **argitaletxe, egile eta itzultzaileen lana aitortuko da**. Nola? Haiek, “lan hori egiteagatik kobratu egingo dute(...) horrela, kultura industria mantenduko da, eta argitaletxeek zein egileek lan berriak sortuko dituzte”, Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordearen hitzetan.

1.500 titulu aukeran

Gainera, eLiburutegia funts oparoa eskaintzeko asmoz sortu da. 1.500 titulu inguru ditu abiapuntuan: gazteleraz 1.300, euskaraz 200; genero eta gai ezberdinetako eleberri ugari, berriak zein klasikoak; badira ezagutza ezberdinetako liburuak ere (giza zientziak, historia, biografiak...); gazte-(txo)-entzako liburuak... 2014. urte honen amaieran, 3.000 izenburuz hornitua egotea espero da; 2015ean, askoz gehiago.

Nola erabili eLiburutegia?

Informazio zehatzagoa Interneten, www.liburuklik.euskadi.net/prestamo-digitalhelbidean topatuko duzu, ePub laguntza izenburupean. Eta nola ez, Sutegi Liburutegian!



<http://www.liburuklik.euskadi.net/prestamo-digital> helbidean topatuko duzue eLiburutegiaren ataria.

■ **0. Lehenik eta behin, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko Liburutegi batean bazkide izan/egin:** erabiltzaile zenbakia eta pasahitza emango dizkizugu; era berean, helbide elektronikoa bat eskatuko dizugu.

■ **1. Behin bakarrik egin beharrekoa:**

1.1. ADOBE ID delakoan erregistratu beharko duzu (lehen aipatutako egile eta argitaletxeen eskubideak bermatze aldera). AdobeID (entifikatzaile) a hau da, zure helbide elektronikoa (zeina, Liburutegiko erabiltzaile gisa utzi duzun berdina izatea komeni baita), eta pasahitza gogoan hartu/gorde.

1.2. PC/MACen bidez edo/eta irakurgailu elektronikoa irakurri nahi izanez gero, Adobe Digital Editions 2.0 programa instalatu beharko duzu zure ordenagailuan eta, aurretik lortutako AdobeID-a eta pasahitzarekin, Laguntza atalean ekipoa (ordenagailua) baimendu.

IOS (Apple) edo ANDROID sistema duten gailuetan (tableta edo telefono mugikorretan) berriz, BlueFire aplikazioa jeitsi beharko duzu eta, AdobeID-rekin (pasahitza gehituz), zure gailua baimendu.

■ **2. Mailegu bakoitzeko egin beharrekoa:**

2.1. www.liburuklik.euskadi.net-en sartu, hortik eLiburutegian, aukeratu gustuko liburuak, eta Mailegatu aukera sakatu (libre egon ezean, erreserba egin dezakezu).

2.2. Liburutegiko erabiltzaile zenbakia eta pasahitza eskatuko dizkizu.

2.3. Mailegatutako liburuak irakurtzeko bi aukera ikusiko dituzu:

2.3.1. Online irakurtzekoa: Internet bidez zure gailuan momentuan irakurtzeko, gordetzeko aukerarik gabe.

2.3.2. ePub formatuan jaistekoa:

a. Zure PC/MAC-ean, Adobe Digital Editions programan ireki eta gordeko zaizu dokumentua. Programa berean mantendu behar duzu irakurgailu elektronikoa irakurri nahi izanez gero, hau USB kable bidez zure ordenagailura konektatuz: Adobe Digital Editions-en, gailuaren irudia azalduko zaizu eta alboan gurgiltzua (Aukerak); Aukerak atalean sakatu “Baimendu gailua” botoia, gailua AdobeID kontuarekin lotzeko. Azkenik, toki batetik bestera arrastatu liburuak.

b. Android gailuen kasuan, aukeratutako dokumentua BlueFire aplikazioan ireki ahal izateko, Deskargak edo tankerako karpetera jo, eta .acsm fitxategia (zure mailegua) hortik zabaldu; ezin baduzu, ES File Explorer bezalako doako fitxategi-kudeatzaile bat erabili eta liburuaren .acsm fitxategia aurkitzen den karpetera (Deskargak...) jo, BlueFire aukeraren bidez irekitzeko.

IOS gailuen (Apple) kasuan, dokumentua zuzenean irekitzen da BlueFiren”.

Mailegu arauak

Liburua zure gailuan duzunean, hau da bete beharreko araudia:

■ Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da.

■ Erabiltzaile batek gehienez 2 liburu hartu ahal ditu maileguan aldi berean; 2 erreserba egiteko aukera.

■ Mailegua iraungi baino 5 egun lehenago, gogorarazteko mezua bidaliko zaio erabiltzaileari. Liburutegiko erabiltzaile gisa utzitako helbide elektronikora iritsiko da mezua.

■ Mailegatutako liburuak eskuragarri egon daiteke 6 gailutan eta 6 ordenagailutan aldi berean.

Azalpen gehiago, Sutegin

Sutegi Udal Liburutegian laguntzeko prest aurkituko dituzue: “Elkarrekin egingo dugu bidea, erabiltzaileek eta liburu-zainok. Nahi izanez gero, hitzordua emango dizugu patxadaz dena ondo azaldu ahal izateko. Irabazteko asko dugu guztiok eLiburutegiarekin. Beste behin, zatoz Liburutegira!”.

■ Liburutegia non?: Irazu 14 kalea.

■ Bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/>

■ Twitter: @usbilb.

■ Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia.

■ Noaia! Komunitatea: Sutegi Udal Liburutegia.

■ App: Liburutegiak



Nahi izanez gero, hitzordua eskatu Sutegin eta beharrezko diren azalpenak jasoko dituzu.

Bizikidetza adostu nahian

GAZTE LOKALEN INGURUKO PARTE HARTZE PROZESUA ONDO JOAN DELA AITORTU DIGU ELHUYAR AHOLKULARITZAK

A maitu da gazte lokalen eta bizikidetza-ren inguruan Usurbilgo Udalak Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean antolatu-riko parte hartze prozesua. Emaiztarekin gustura da, Potxoeneako lan saioak bideratu dituen Elhuyarrek kide Imanol Azkue. "Balorazioa ona da, ondo joan da, oso giro onean. Jende gehiagok hartu izan balu parte hobe. Ondorioa ere ona da, adostasun puntu batzuk atera dira bizikidetzaren inguruan", Azkuek lerrootan adierazi duenez.

Parte hartze aldetik hasieratik hobetzen joan da prozesua?

Imanol Azkue: Guztira 35 lagunek parte hartu dute; lokaletako gazteek, lokalen jabeek, gurasoek, bizilagunek hartu dute parte. Gazteetan guztira 10 lagunek parte hartu dute, 9 neskek eta mutil bakarrak, lokaletako erabiltzaile gehienak mutilak direnean. Nesken bi lokal daude eta bietakoek parte hartu dute. Gure ondorio edo balorazioa zera da; gazte lokalena Usurbilen ez dela gai gatazkatsua gaur egun. Arazo gehiago egon izan balitz, seguru asko jende gehiagok parte hartuko zuen. Halere, arazorik egon ez arren, bada kezka bat gazte lokalak arautzearen inguruan. Arautu gabe daudenez, istripurik edo arazorik gertatzeko kezka bada. Horren inguruan badago hitz egiteko gogoia.

Parte hartze prozesuko helburuak bete dira?

Bai, neurri handi batean. Helburua gazte lokalez eta bizikidetzaz hausnartzea eta ahal zen neurrian adostasunak lortzea zen. Hausnartu dugu, egoera aztertu dugu. Galdetegi bat pasa genien gazteei, galdetegi haren emaitzak aurkeztu genizkien gazteei eta helduei, beraien ikuspegia erakutsi eta ekarpenak ere egin zituzten; bizikidetza zerk erraztu eta zailtzen duen, zer zaindu behar den bereziki... Gure helburua adostasun batzuk lortzea zen. Hori ere lortu da. Ikuspegi desberdinak daude. Denek, gazteek eta helduek, ez dute beti berdin bizi gaia. Ikuspegi ezberdin horietatik ere besteek zer pentsatzen duten entzun eta norberaren iritzia ematea lortu dugu.



Gazteekin lehenik, helduekin ondoren. Eta batzuekin eta besteekin batera. Bilerak emankorrak izan dira.

IMANOL AZKUE, ELHUYAR

"Denen aldetik jarrera oso ona egon da. Alde horretatik entzuteko eta hitz egiteko gogoz etorri da jendea, jarrera irekiarekin. Ondo joan da prozesua. Oso pozik nago"

Nolakoa izan da herritarren parte hartzea?

Etorri diren guztien aldetik oso jarrera eraikitzailea egon da, besteak errespetuz entzutekoa. Parte hartze ona izan da hasieratik.

Hasieran, lan saio bana egin zenuten gazte eta helduekin. Gero, bi biler bateratu guztiekin. Nolakoa izan zen bateratze unea?

Bateratze horretan nabarmen geratu zen ikuspegi ezberdinak daudela. Batzuek gazte lokalak arautu eta araudi hori beteratzea nahi dute. Beste batzuk diotenez, zertarako arautu ez badago arazorik. Gazteek esaten zuten beraiek badituztela barrura begira funtzionatzeko arauak eta orduan zergatik eskatu behar zaizkien beraiei arau batzuk, beste batzuei eskatzen ez baldin

bazaizkie. Nahikoa dela sen ona izatea. Arazorik ez badago, ondo doa dena. Bizikidetza arazoak edo istripuak izaten direnean ikusten da arautu beharra dagoela. Gurasoek ziotenez, lokal bat gazte lokal bat bihurtzean beste edozein lokali (taberna, denda...) eskatzen zaien aktibitate lizentzia eskatu behar litzaike, gutxieneko baldintza batzuk izateko. Hori beharrezkoa da lege baten gainean egitea, baina gaur egun ez dago gai honen inguruko legerik.

Aurrera begira, zer egingo duzue prozesuak emandakoarekin?

Helburua adostasunak sortzea zen, eta horietan oinarrituta Udalak araudia egitea. Adostasunak baditugu, horren gainean posible da araudi bat ateratzea, baina ikusiko da zer egin. Hurrengo gure pausoa, adostasun horiek dokumentu batean idaztea izango da. Urtarrilean bilera berezi bat egin nahi genuke; parte hartu duten guztiei, adostasun guztiak biltzen dituen dokumentuaren berri eman. Zer pauso eman ditugun errepasatu eta ikusi dokumentu horretan jasoa ote dagoen benetan adostu zena. Prozesua biribiltzeko, bukatzeko. Hortik aurrera gero, Udalak ikusiko du zer egin.

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

**ETXETRESNEN
KONPONKETAK**

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665

XABIER

Usurbil

**Pinturas
lon**

KANPOALDEKO FATXADAK ETA
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Urtarrilaren 3a, Jontxu omentzeko eguna

Ederki merezitako omenaldia izango du Jon Uribek, urtarrilaren 3an. Jontxuren lagunak prestaketa lan betean dira. Gogoan izan, duela ia urtebete gure artetik joan zen gaztearekin argazkiri duzuenok, antolatzaileei bidaltzeko aukera duzuela. Omenaldi egunerako irudi bilduma bat osatzen ari baitira. Hauxe duzue, argazkiak bidaltzeko helbidea: jontxu.herriko.alka-te@gmail.com

Herritarrei urtarrilaren 3ko ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatzen zaie. Hauxe da momentuz, lotu duten egitaraua:

Urtarrilak 3, larunbata

11:00 Jokoak frontoian.
13:00 Poteo musikatua.
14:30 Bazkaria Udarregi Ikastolako jangela berrian:
-Txartelak salgai: aurrez eta 12 eurotan, Txiribogan, Aitzagan eta Irratin.
-Menua: barazki paella, oilaskoa eutxorrei saltsan eta postreerako, gazta. Ogia, edaria, kafea eta kopa barne.
19:00 Omenalditxo (argazki proiektzioa) eta jarraian, herriko taldeen kontzertuak Askatasuna plazan.

Antolatzailea: Jontxuren lagunak.



Usurbilgo gaztetxea eta herriko hainbat gazte koadrila aritu dira urtarrilaren 3ko eguna antolatzen.

Gaztetxekoen agenda betea

Ekimen gehiago iragarri dituzte "Ez dadila haria eten!" lemapean:

Abenduak 27, larunbata

11:00 Kitar mantenu tailerra.
"Bakoitzak bere kitarra eta baxua ekarri eta Mattinekin puntu puntuan jartzeko eraman beharreko pausuak emango ditugu. Kitararren kintajea, zubia..."

Urtarrilak 8, osteguna

20:30 Afari beganoa Gaztetxean, borondatearen truke. "Basa landareekin egindako errezeta desberdinak izango ditugu garai barazkiekin nahastuta: sorgin-zopa, osin-patea..."

Urtarrilak 18, igandea

18:00 Antzerkia: "La Esclusa".

Sarrera: 3 euro. "16 urte preso egon eta bihar... askatasuna!! Ez begiratu andere atzera, bihotzak argitu eta dantza egin. Dantza egiteko ordua da. Kartzelako gaia eta emakumearena, bide batez ukitzen dituen antzezlanak Ana Plazaren eskutik. Antonio Morenok zuzendua".

Urtarrilak 25, igandea:

Haur eta Gaztetxoen Eguna

10:30-12:30 Jolasak frontoian: LH4-DBH 2koei zuzendua.
17:00-19:00 Tailerrak Gaztetxean: HH3-LH3koei zuzendua.
19:00etatik aurrera, txokolate jana denentzat.

Antolatzaileak: Usurbilgo Gaztetxea eta herriko hainbat gazte koadrila elkarlanean.

Aski dela erantzun dute herritarrek

Aski dela esan zuten. Azken egunotako eraso sexistak ezin direla gehiagotan errepikatu eta gertatuz gero, erantzun gabe geratu. Azken egunotan emakumeen aurka izan diren erasoak salatu zituzten herritarrek, Usurbilgo Eragile Feministak deituta, aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan burutu zen elkarretaratzean.

Deitzaileek bat egin zuten, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak azken egunotako eraso matxisten harira kalaturiko adierazpenarekin. "Gure gaitzespen osoa eta salaketa irmoa egin nahi dugu", dio adierazpenak.



Azkenaldian eman diren erasoak salatu zituzten elkarretaratzean.

Open mic gaztetxean

Abenduak 28, igandea

18:00 "Open Mic". "Edozein artistak", bere tartea edukiko du. Ordu laurdenez bere barruan daraman hori azaleratzeko aukera izan musika, olerki, magia, bertso... Berdin du prestatuta izan edo ez, kontua dibertitzeko gaia edukitzea da. Igande pasiboiei sua!"

1.711

Enpresa berri



Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



Unai Aizpurua, Mexikotik: “Erronka handia da”

Eguberriak gainean ditugu, etxeko giro goxora itzultzeko garaia askorentzat. Ikasketak edo lana tarteko, bada eta usurbildarrik atzerrian. Egunotan herri- bueltatuko direnen artean, Unai Aizpurua Nogales. Lan kontuak tarteko, denboraldi baterako Mexikora bizitzera joana den atxegaldetarra. Bizitzen ari denaren berri eman dio Mexikotik zuzenean NOAUA!ri.



Hiru urterako joan da lanera Mexikora.

Lau hilabete egin dituzu Mexikon. Zer moduzkoa izaten ari da esperientzia berri hau?

Unai Aizpurua: 3 urtetarako proiektua da. Produktu berrien garapeneko departamendua martxan jarri behar dugu, makina eta produktu berriein. Erronka handia da, Bilboko lantegiko makinak eta Mexikokoak ez baitira berdinak, ezta ekoizten ari garen produktuak ere. Esperientzia oso ona da, baina aldi berean oso gogorra: lan egun luzeak, atsedeen hartzeko denbora gutxi, presio asko, bakardadea. Zorionez, pixkanaka aurrera goaz.

Ingeniari bezala ari zara lanean. Zein da zure lan esparrua?

Oraintxe bertan, produktu berrien garapeneko departamentu bateko burua naiz. Gure tal-

UNAI AIZPURUA

“Lantegia Pachuco del Soto hirian dago, Mexico DFtik ordubetera. Herri izaera duen hiri handi bat da”

dearen lana, produktu berriak diseinatu eta industrializatzea da. Gure produktuak, beirazko edalontzi, kopa, bowl, gordailuak dira, eta hauek molde bidez eratzen dira, horretarako diseinatutako makinetan. Hala ere, orain, Mexikon, enpresaren hasiera eta egonkortze honetan, beste departamentu batzuetako bultzatzaile ere banaiz: molde tailerra, produktzioa... Saltsa guztietako

perrexila beti bezala.

Merkatu berriak bilatzeko 70 bat euskal enpresa ba omen dira zuen inguruan. Zer du erakargarritik Mexikoko merkatuak, zue- na bezalako enpresentzat?

Mexikoren erakarpena hiru ardatzetan banatu daiteke: barne merkatu handia duen hazkunde handiko herrialde bat da. Bigarrenik, AEBtatik gertu dago eta garraio kostu baxuekin bertan saltzeko ahalmena dago. Hirugarrenik, bertako eskulan kostuak gurean baino baxuagoak izanda, koste murrizketa erraldoia dago produktuan.

Mexikon zaude bai, baina zehazki non?

Lantegia, Pachuca del Soto hi-

rian dago. Mexiko DF-tik ordubetera. Hidalgo probintziako hiriburua da. Herri izaera duen hiri handia da. Hiri ez oso industrial gaur egun, nahiz eta industrializazioa bultzatzen ari diren bertako gobernuak. Gaur egun, biztanleriaren %60a funtzionarioa da. Horrek abantaila fiskal haundiak eman dizkigu, baina arazo asko sortu ere bai: pertsonal gaitua bilatzea ez da erraza eta errotazio handia daukagu.

Lanpostuan jarraitzekotan, Mexikora joan beharra zenuen. Hara joateko erabakia hartzea, ez zen erraza izango. Zerk bultzatu zintuen baiezkua ematera, Mexikora joatera?

Egia esan, asko hausnartu gabe hartutako erabakia izan zen. Arazo handiena, egun batetik bestera neure “maitxia”, familia eta lagunak hemen utzi eta 12.000 kilometrotara bizitzera joatea izan zen. Neure bizi- modua goitik behera aldatu da. Erronka profesionala handia da, kurrikuluma aberasteko aukera galanta. Momentuz nahiko ondo daramat: Skype, Whatsapp eta hiruhilabetero Euskal Herrira itzuliz, banoa bakardade honi aurre egiten. Egunero egutegira begira eta egunak ezabatuz nabil.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64

Zuri esker

garraio publikoa gipuzkoarren %64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa
BERRIA

onka profesionala handia da”

Zure egoera berean aurki dai-tekeenari, bitan pentsatu gabe baiezkoa eman eta kanpora joa-teko, edo ondo pentsatzeko esan-go zenioke? Zergatik?

Unai Aizpurua. Bai eta ez. Nik orain enpresa honetan dudan lan karga ez nuke 10 urtetan Euskal Herrian izango. 4 hila-bete honetan irabazitako esperientzia izateko, han 5 urte beharko nituzke. Aukera ez da txarra, baina ez pentsa erraza denik. Erabakia hartzea agian errazena da. Eskuan tako bat, mexikar pelikula bat, zure etxeko sofán bakarrik aurkitzen zarenean konturatzen zara, zenbat maite duzun Euskal Herrian utzitako bizitza. Gauzak baloratzeko balio du esperientziak. Neska lagun eta familia zenbat maite duzun jakiteko ere. Esperientzia honek lotura horiek are eta gehiago indartzeko balio du.

Ezagutzen zaituenak badaki, edozein ingurunetara egokitze-ko arazo handirik ez duzula izaten. Zer suertatu zaizu errazen hango bizimodura ohitzeko? Hemendik urruti izateak zaildu dizu bizimodua?

Erraza ez da ezer. Kultura guztiz desberdina da, jakietatik jendearen izaeraraino. Lanean ere ardura handia izateak, dis-



Leku polit ugari dago Mexiko aldean, nahiz eta lanagatik, denak ezin ikusi.

tantziak mantentzea ekarri dit, eta ez da erraza. Lan baldintzak ere gogorak dira: lan ordu luzeak eta jaiegun gutxi momentuz. Hala ere, norberak proposatutako ideiak, metodologia eta lan lerroak betetzen direla ikusteak, esfortzu eta sakrifizio hau, merezi duela erakusten dizu. Bizimodua orain lanera gehiago dut zuzendua, nahiz eta noizbehinka afaritxo eta parrandak egin.

Irla galdu batera objektu bat eraman beharko bazenu, zuk trikitixa seguru? Mexikon da zurekin ezta?

Noski. Nire ihesbidea da une askotan. Intimitate uneetan, berriz ere etxean bezala senti-

tzen laguntzen dit.

Ettxera bidean zatoz jada, gabonak gure artean igarotzera. Euskal Herrian lur hartu ostean, zein izango da zure lehen egitekoa?

Neure maitiaren berotasuna sentitzea, eta ondoren, familia eta kuadrilarengana joatea. Uste duzuen baina gehiago botatzen zaituztet faltan. Etxean bezala, inon ez.

Agurrik bidali nahi?

Mila esker neskalagun, familia eta kuadrilari. Beraien laguntzarik gabe ezingo nuke jarraitu erronka honetan. Batzuetan kasu asko egiteko denborarik izan ez arren, beti zaituztet gogoan.

Plater goxo bat.

Arrachera plater bat, margarita batekin.

Bisitatu beharreko leku bat.

Mexikok leku asko eta politikak ditu: DF, Puebla, Guanajuto, Riviera Maya... Nire probintzian, Huaska eta bertako prisma basaltikoak.

Mexiko D.F. hiriaz ze inpresio?

Handia eta kaotikoa da.

Hango ohitura bereziren bat.

Oso kristauak dira hemen, eta ni imintzioka edo biraoka hasten naizenean, imajinatu beraien aurpegia!

Mexikoko hamarnaka ikasleen desagerpenak, arduratua du “mundua”. Nola bizi duzue gaia? Zure inguruan, segurtasun falta sentitu duzu?

Egia esan Mexiko hain handia da, gure zonaldea oso segurua da, herri kutsua du. DF-n ordea, kontuz ibiltzeko zonaldeak daude. Baina nire esperientzia Pachucan, oso lasaia da. Egunerokoak dira bahiketak eta hilketak, baina ez neure inguruan. Egoera tamalgarri horretatik kasik isolatua bizi naiz.

Babarrun beroak dastatu, bertako ekoizleen sagardoa edan, talo-jana egin, Udarregiko ikasleen gozoak probatu... Jateko eta edateko aukera ugari izan genuen aurreko igandean, Santo Tomas azokan. Ohi bezala, jakinmin handia piztu zuten sagardo zein babarrun lehiaketek. Baina gehiagorako ere eman zuen egunak.

A group of men are gathered outdoors. In the foreground, three green glass bottles are on a white surface. Behind them, a group of men are standing. One man on the left wears a black beret and a dark jacket. Another man in the center wears a plaid shirt under a dark jacket. A man to his right wears glasses and a grey jacket. Further right, a man in a black jacket with a red lining is visible. The background features a bright blue wall and a building with a balcony.

Aizpurua aritu zen frontoian,
Manu Piñeirorekin batera ba-
barruna banatzen.

Ana Aizpuruak bi sukaldariren lana azpimarratu nahi du: “Manu Piñeirori eta Xabi Tello-

ri esker eskaini genuen Olarri
baserriko babarruna. Manu
Piñerok tolosar erara egin zi-
tuen, hau da, ezer gehitu gabe.
Eta Xabi Tellok berdura pixka
